


DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
DSS2016.EU



WELCOME MR. HITCHCOCK

Bidaia Euskal Herritik barrena



DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL



EUROPAKO KULTUR
HIRIBURUA

Antolatzailea



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

Laguntzailea



DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

Erakusketa hau osatzen duten irudiak honakoen artxiboetakoak dira:

Biblioteca Nacional de España
Vicente Ibáñez
Kutxateka
Fondo Paco Marí
Donostia Zinemaldia
Médiathèque centre-ville de Bayonne
Aéroport Biarritz Pays Basque
Carlos Saura
Álvarez (Willy Kotch) familia
Iván Zulueta
Pedro Usabiaga
Paramount
MGM

Eskerrak:

Gala Álvarez
José Luís Tuduri
Miguel Vidaurre
Enrique Herreros
José Luís Rebordinos
Moncho Trillos
Hotel Astoria

Erakusketaren zuzendaritza eta komisariotza

Pedro Usabiaga

Laguntzailea

Quentin Valois

Ekoizpena

Marisa Usabiaga

Jatorrizko testuak

Pedro Usabiaga

Testuen koordinazioa

Gorka Larrumbide

Itzulpenak

Cristina Odriozola
Quentin Valois

Infografia eta diseinua

Quentin Valois

Ikus-entzunezkoak

Quentin Valois

Erakusketaren muntaiaren diseinua eta ekoizpena

Gorostidi-Sistiaga Arquitectos

Erakusketaren diseinu grafikoa

Estudio Lanzagorta

Argiztapenaren diseinua

Xabier Lozano

Erakusketaren muntaia

Druck S.L.

Aroztegia

Mella Aroztegia

Estalgarriak

Jufra

Erreprodukzioa eta inprimatzea

Printhus

WELCOME MR. HITCHCOCK

Bidaia Euskal Herritik barrena

Alfred Hitchcockek eta bere emazte Alma Revillek 1958an, Donostia Zinemaldiak "Bertigo" filmaren mundu mailako estreinaldia hartu zuenean, Euskal Herrira egin zuten bisita kontatzen du *Welcome Mr. Hitchcock* erakusketak, egunkari pertsonal gisa. Kronologikoki eta urratsez urrats, zinema-zuzendariak Biarritz, Hendaia, Donostia, Pasai Donibane, Baiona eta Lurda bisitatu zitueneko lau egunen kontakizuna jasotzen du. Erakusketak bidaia hura berregin du eta, iraganarekin jolastuz, gaur egun arte ekarri. Suspensearen maisua izan zenaren alderdirik ezezagunena erakusten digun argazki-ibilbide honek ehun irudi hartzen ditu, gehienak berriak, iraganera bidaiarazteko eta garai hartako moduak eta modak gogora ekartzeko.

Uztailak 21, astelehena

Biarritz-Hendaia-Donostia

Alfred Hitchcock eta bere emaztea, Alma Reville gidoilaria, uztailaren 21eko 12:50ean iritsi ziren Biarritzeko aireportura, Los Angelesetik Pariserako bidaia gorabeheratsu baten ondoren. Ipar Poloa zeharkatzen zuen linea zuzena eta eskalarik gabea asko erabiltzen zen garai hartan. Amerikar aire-espaziotik irten baino lehen, tripulazioak gasolio-ihes bat antzeman zuen erregai-gordailuetan eta pilotuak larrialdiko lurreratze bat egin behar izan zuen Albanyko hegazkin-basean, Seattleen. Pare bat ordutan konpondu zuten arazoa, eta Frantziako hiribururainoko bidaiari ekin zioten berriro. Igandean heldu ziren, 17:00ak pasatxo. Hurrengo egunean Biarritzera egin zuten hegaz, arazorik gabe. Euren bisitak irauin zuen denbora-eperako Donostiako Zinemaldiaren antolatzaileek eskaini zieten Rolls-Royce dotorea zeukaten zain bertan. Hendaia eta Irun arteko mugara heldu ziren errepidean, eta pasaporteak entregatu zituzten bertan, komunikabide grafiko eta idatzizkoen ikusmin izugarriaren aurrean. Han izan ziren Torremocha argazkilaria, Maritxu Mayor Lizarbe kazetaria, edo Paramount banaketa-entresaren buruzagiak. Donostiarainoko bidea aurkikuntza interesgarri bat izan zen britainiar zuzendariarentzat, Euskal Herrira egiten zuen lehenengo bisita baitzen.

Solemnitate handiz hartu zuen Hitchcock María Cristina Hotelera heldu zenean Zinemaldiaren zuzendari Antonio de Zulueta Jaunak, Ivan Zulueta zinemagilearen aita, Donostiako Ateneoa zineklubaren sortzailea eta hiriko Klub Nautiko Errealaren presidentea izandako gizon jantzi eta ongi heziak.

Donostia

Britainiar zuzendariak María Cristina Hoteleko 405. suitea hartu zuen, eta ibilaldi bat egin zuen ondoren hirian barrena, Paramounteko kide batekin. Almak hotelean atseden hartzen zuen bitartean, Hitchcockek harrera bikaina izan zuen herritarren aldetik, eta autografo ugari sinatu zuen oinezkoen artean. Nekatua zirudien arren, zuzendariak xehetasun oro zuen kontrolpean. Ongietorria emateko bazkaria garai hartan José Manuel Villar Salbide presidente zuen Gaztelubide elkarte gastronomikoan egin zieten. Jan-edan ederra egin eta gero, Santa Teresa Eliza eta Santa Maria basilika bisitatu zituzten talde osoarekin eta Paco Marí argazkiliarekin batera. Azken horretan, eliz atari nagusiaren distira mirestu zuen. Ondoren, Abuztuak 31 kalea zeharkatu eta San Bizentera iritsi ziren. Bertan, bere albotik pasa zen erlijiosa batekin argazkia egin ziezaioten utzi zuen Hitchcockek. San Telmo museoraino heldu zen ondoren, eta txundituta geratu zen José María Serten freskoekin eta museoaren atari ikusgarriarekin. "Agertoki natural bikaina da nire filmetako baterako!" egin zuen oihu. Arratsaldea hoteleko suitean eman zuen, atseden hartzen, afalordura arte.

Zuzendari polifazetikoak eta bere emaztea María Cristina hoteletik gertu zegoen eta 1912. urtean Nicolasa Praderak Aldamar kalearen erdian ireki zuen Casa Nicolasa jatetxe klasikora abiatu ziren. Ez zen menuarekin eskas ibili: meloia urdaiazpikoarekin, txapiroak bere tintan, mihi-arraria “belle étoile” eran eta melokotoi puddinga. Hitchcockek aipatu zuenaren arabera, “behin bikotearen hasierako sexu-bulkada desagertu ondoren, elkarrekin jatea maitasuna egitearen aldagai bat da”.

58. urtea

Bestalde, 1958. urtea nahiko nahasia izan zen. Urte hartan sortu zen Europako Elkarrekin Ekonomikoa. Egipto eta Siria elkartu egin ziren Arabiar Errepublikak Batua sortzeko, gero banandu egin ziren arren. Pertiako Shak Soraya printzesa zapuztu zuen antzutasuna zela eta. Sobietar Batasunak Sputnik 3 satelite artifiziala bidali zuen espaziora. Francok “Mugimendua”ren oinarritzko legeak atera zituen. Charles de Gaulle hautatu zuten V. frantziar errepublikako presidente. Chupa Chups piruleta fabrika sortu zen. Vladimir Nabokoven “Lolita” eleberria argitaratu zen, 1962. urtean Stanley Kubrickek zinemarako egokitu zuena. Ibañez marrazkilaria Mortadelo eta Filemón sortu zituen. Brasileko futboleko mundu txapelketa irabazi zuen, Pelé buru zuela. Juan Ramón Jiménez poeta hil zen, bi urte aurretik Nobel Saria jaso ondoren. Lurdako Ama Birjinaren mendeurrena zen. Irratian arrakasta zuen abestia Domenico Modugno abesten zuen “Volare” zen. Lambrettan, modan zegoen motorrean, ibiltzen ziren gazteak. Koñaka Terry 1900 zen. Aita Santua, Pío XII, mojei zuzentzen zitzairen, zera adieraziz: “alaitasuna, pobrezia eta xumetasuna dira komentuko bizitzaren oinarriak”. Munduaren beste tokiek isolatu egiten gintuzten bitartean, erregimena lurraldearen irudi irekitzaile eta kosmopolita zabaltzen ahalegintzen zen, eta Donostiako Zinemaldia erakusleko egokia zen zeluloideko izarren eta zuzendari ospetsuen bisitak erakusteko, eta baita 50eko hamarkadaren amaieran bizi zen zapalketa geldiarazlea oharkabean pasarazteko ere. Modan zegoen aldizkaria “Gaceta Ilustrada” zen (“Paris Match”en antzekoa). Azalean, “Zinema Donostian” irakur zitekeen. 1958. urteko krisialdiak eta inflazio handiak langile-klasearen ondoeza sortu zuten, baina Franco jeneralak barearazi egin zituen gertakari haiek.

Donostia Zinemaldia

1958ko uztailean, Donostia eguzkitsu zegoen. Zinemaldian, Bobby Deglané irrati-esatari ospetsuak “starlette” batzuen iritsiera kontatu zuen zuzenean. Egun horietan, herri-krosa egin zen Lasarte-Orian, Willy Koch argazkilaria eta jaialdiaren batzordeko kideak sustatuta. Urte hartan, horrez gain, Mario Monicelli, Leopoldo Torres Ríos, Basil Dearden, Antonio Pietrangeli, Richard Fleischer edo Douglas Sirken lan berriak ikusi ahal izan ziren Zinemaldian, baina, zalantzarik gabe, ekitaldi hartako gertakari gogoangarriena “Bertigo” filmaren estreinaldia izan zen. Gonbidatu ugari izan zen: Luis García

Berlanga, Anthony Mann eta Sara Montiel, Ana Mariscal, Roman Polanski, Carmen Sevilla, Lex Barker, Kirk Douglas, Jean Marais, Alessandro Blasetti, Carlos Saura, King Vidor, Manoel de Oliveira, Rosanna Schiaffino edo Jacqueline Sassard.

Itzul gaitezzen, baina, Hitchcockekin. Patxadan ari zen atsedean hartzen María Cristina hoteleko suitean, bere film berriaren azken ohar batzuk amaitzen zituen bitartean. Izan ere, Cari Grant eta Eva Marie Saint protagonista zituen "Heriotza orpoetan" zen azken pelikula hori, eta Donostian egoteko astebete atzeratu behar izan zuten filmaketa.

Uztailak 22, asteartea

Pasai Donibane

Eguna euritsu hasi zen. Alfred Hitchcock eta Alma Reville emazteak suitean gosaldu zuten. Eskualdean turismoa egiteko eguna zuten hura. Pasai Donibanetik hasi zuten bisita; Victor Hugo frantziar idazle ospetsua gure artean izan zen garaiako etxea arretaz ikusi zuten. Kalekka estuak zeharkatu eta itsasoaren bista mirestu zuten. Zinemaldiaren antolatzaileek jabetxe ezagun batean egin zioten erreserba, 1884. urtean Pablo Cámarak sortu zuen Casa Cámaran, alegia. Sekulako gourmeta zen Alfred, eta bazkari oparoa egin zuen. Zizka-mizkak, mihi-arraina, tournedo garnizioarekin, arroz-esnea, kafea eta puru erraldoi bat.

Baiona

Bazkaria amaitu ondoren Iparraldera joan ziren, Baionara. Antolakuntza-taldeak hiriko katedral bikainera eraman zuten bikotea, 15 Rue des Prébendesen dagoen Sainte-Mariera. Bai Hitchcock eta bai Luis Buñuel katolizismoan hezi ziren, Jesuitekin, baina bide ezberdinak hartu zituzten ondoren. Hitchcock katoliko praktikantea izan zen bere bizitza osoan, eta horregatik aprobetxatu nahi zuen Euskal Herriko bidaia elizak, klaustroak eta katedralak bisitatzeko. Gotiko estiloko eliza XIII. mendean hasi ziren eraikitzen, eta ez zuten XVII. mendera arte amaitu. Bere bi dorreak, ordea, XIX. mendean osatu zituzten. Barruan, Hitchcockek egurrezko eserlekuetan hartu zuen atsedean, harrituta eta sinesgaitz, katedralaren edertasuna miresten zuen bitartean. Ez zuen 1760. urteko pulpitu mardul eta barrokora igotzeko zalantzarik izan. Zinemagilea beirate izugarrien aurrean gelditu zeneko momentua atera zuen argazkitan Paco Marík. Eliza barruko material grafiko guztia argitaratu gabe egon da urtetan, agintari frankistek lotsagabetzat hartu zutelako Hitchcockek barruan izan zuen jarrera.

Ondoren, Pont Neuf kaletik auzo zaharreraino jaitsi ziren, eta argazkiak atera zituzten hainbat txokolategitan, hala nola Patisserie Jacquotte gozotegian, eta kafea hartzera geratu ziren bertako terrazan. Oinezkoekin

batera ibili zen, eta eskatu zuten guztiekin atera zuen argazkia. Almak alaba Patriciarentzako bonboiak erosteko aprobetxatu zuen gozotegi ospetsuan egindako etenaldia. Ibaireno joan ziren ondoren, eta britainiar zinemagilea "La Rascasse" edo "Les Arceaux" jabetxeen aurrean gelditu zen. Hain berezkoa zuen umoreaz baliatuz, ehorztetxe ospetsu baten erakuslehoan ikus zitezkeen hilkutxa ezberdinak miretsi zituen Hitchcockek.

Bisita Lurdara

Arratsalde erdian, Lurda bisitatu zuten, zuzendariak gogo berezia baitzuen. Urte hartan, Bernadette neskatoari Ama Birjina azaldu zitzaioneko mendeurrena ospatzen zen, eta zuzendari ingelesak ez zuen galdu nahi izan ospakizun hark sortu zuen europar erromesaldia. Herriaren debozioa ikusi ahal izan zuen bertan, gaixoen artean, eta baita Lurdako Ama Birjinaren ohorezko estatua ere, haitzulo txikian.

Ilunabarra zen Donostiara itzuli zirenerako eta, egun osoko irteeragatik nekatuta zeudenez, gelara itzuli ziren atsedean hartzeko. Lehenago, ordea, Maritxu Mayor Lizarbe kazetaria hurbildu zitzaien igogailuan, eta hainbat galdera egin zizkion zuzendariari:

– Zein izar emakume eta gizonezko duzu gogokoan?

Hitchcockek ondorengo hau erantzun zuen, ironiaz:

– Galdera horrek ez du erantzunik.

– Galdera arriskutsua al da? -gaineratu zuen "La voz de España"ko kazetariak.

Hitchcockek, irribarrez ari zen emazteari begira, deiadar egin zuen:

– Gustukoan ditudanek edo aktore onenak iruditzen zaizkidanak esaten badizkizut, aipatzen ez ditudanek erail egin nazakete.

Barre algaren artean heldu ziren suitera. Hurrengo egunean zen "Bertigo"ren aurkezpena eta, beraz, atsedean hartzea komeni zitzaien.

Uztailak 23, asteazkena

Donostia-Polloeko Hilerria-María Cristina Hotela

Ikusmin handia zegoen "Bertigo" filma eman baino lehen. Paramount estudioetako hainbat arduradun zegoen Donostian, eta jendearen erreakzioa ikusteko irrikan zeuden.

Goizeko lehen orduan, "Gaceta Ilustrada"ko Enrique Herreros kazetariak eta Vicente Ibáñez argazkilariak lagunduta, Polloeko hilerria joan ziren. Argazki-saioa egin zuten bertan, ez soilik aipaturiko aldizkarian argitaratzeko, baita une hartako aldizkari frantses ospetsuenean ateratzeko ere, "Paris Match"en, alegia, honako izenburu iradokitzaile honekin: "Suspensearen erregea ustekabearen harrapatuta bere inspirazio-lekuan".

13:00etan prentsaurrekoa egin zen, filmaren ekoizpen-etxeak antolatuta,

María Cristina Hoteleko egongeletan. Zinemagileak aukera aprobetxatu zuen bere hurrengo filma, "Heriotza orpoetan", iragartzeko. Publikoa harrituta geratu zenez, zuzendari ingelesak suspenseko zinemaren berezko ikuspegia azaldu zuen: "Iraganeko munstro-filmak fintzea bezalakoa da. Nire filmek zera erakutsi dute, publikoaren interesa mantentzeko ez dela izutzeko edo ikaratzeko moduko ezer behar, eta beren begien aurrean gertatzen ari den horri adi egotea lor daitekeela oihurik eta gehiegikeriarik gabe. Benetan harro nago lorpen honekin". Prentsaurreko bizia izan zen, eta larruzko besaulki batean eserita eta mahai baten alboan, kazetariak egin zituzten galdera guztiak erantzun zituen Hitchcockek. Han izan ziren Luis García Berlanga zuzendaria eta Ana Mariscal aktorea, ordu batzuk beranduago Victoria Eugenia Antzokian zinemagilea aurkeztuko zuena, hain zuzen ere.

Arreta guztia prentsaurrekoan jarrita zegoen bitartean, Alma Reville King Vidorekin hizketan ari zen, adiskidetsu. Zuzendaria "Salomón eta Sabako erregina" filmatzen ari zen egun horietan gure lurraldean. Berriketa interesgarri baten ondoren, Hitchcocken emazteak erosketak egiteko aprobetxatu zuen goiza, bere senarrak komunikabideak artatzen zituen bitartean. Lehenik eta behin, Balenciaga etxea bisitatu zuen, Avenidako 2.ean. Garai hartan, etxe hark Eissa zuen izena, Getariako jostunaren amaren abizenaren omenez. Diseinatzailearen ohiko bezeroa zen Alma, eta arrunta zen Parisko jantzi-probatan ikustea, txintik atera gabe laguntzen zion senarrarekin batera. Antonio de Zuluetaen emazte Vergarajáuregui andrearekin batera, hainbat jantzi erosi zituen bere alaba Patriciarentzat, dagoeneko existitzen ez den Derby dendan. Aperitibo bat hartu zuen ondoren, Café Madridenten terrazan, turistez josita zegoen Donostia hartan.

Donostia eta antikuariora bisita

Prentsaurrekoaren zalapartaren ondoren, nekatuta zegoen arren, Hitchcockek hiriko hainbat antikuario bisitatu zituen, Enrique Herreros kazetaria lagun. Jendeak ikusi zuenean, dendetako baten erakusleihoan jarri zen, argizarizko estatua baten moduan, mugitu gabe, oinezkoak harrituta utziz. Ondoren, eta bazkaria arina izan zenez, kaira joan zen, eta dozena bat sardina plantxan irentsi zuen.

Victoria Eugenia Antzokia eta "Bertigo"ren estreinaldia

Urte hartan argiztapen berria estreinatu zuten "Jaialdiaren Jauregi" esaten zitzaion Victoria Eugenia Antzokian. Alfred Hitchcock garaz heldu zen, esmokin beltzarekin, Alma Reville emaztea alboan zuela. Cristóbal Balenciagaren konjuntio zuri bat zeraman Almak, eta larruzko lepoko bat. Ana Mariscalen aurkezpen labur baten ondoren, zuzendari ingelesa keinu irmo batekin atera zen eszenara. Hitchcockek, txiste eta txantxa artean, benetako izarra bera zela erakutsi zuen berriro ere, antzokia leporaino betetzen zuten ikusleen aurrean.

– Filma ikusteko irrikan nago. Hainbestekoa baitu suspensea...!, esan zuen ironiaz.

Publikoaren artean epaimahaikide guztiak zeuden, baita zuzendari gazte eta hasiberriak ere, adibidez, epaimahaiaren saria jaso zuen “Cuenca” film ertaina aurkeztera zihoan Carlos Saura. Dokumental honek Francisco Rabal aktorearen ahotsa zuen, eta Cuencako lurraldeetan barrena egindako ibilbide zintzoa zen, artifiziorik gabekoa, baina sentimendu eta benetakotasun handikoa.

Roman Polanski, garai hartan oraindik ezezaguna zen poloniar gazte eta despistatua, Donostian izan zen urte hartan lehen aldiz, 25 urterekin, batere nabarmendu gabe pasa zen “Bi gizon eta armairu bat” film laburra aurkezteko. Hala ere, bere bisita ez zen alferrikakoa izan, maitasun-harreman bat baitzuen Barbara Kwiatkowskarekin, urte hartako zinemaldiko irabazlea izan zen filmaren protagonistarekin. Urte bete beranduago ezkondu ziren. Urte hartako jaialdian “Evak lo egin nahi du” filmeko aktore gisa lortu zuen arrakastaren ondoren, Barbara Kwiatkowskak izen sinpleago bat jartzea erabaki zuen, eta Barbara Lass aukeratu zuen. Filmaren proiektzioan, bestalde, Anthony Mann amerikar zuzendaria ere izan zen, bere emazte Sara Montielekin batera. Hiriko aurpegi ezagunenak izan ziren bertan, Antonio Vega de Seoane alkatea buru zela.

Hitchcock eta bere emaztea publikoaren erreakzioari adi zeuden, filmak aurrera egin ahala, pelikula bakoitzeko taldeentzat erreserbatutako palko zentraletik. Saul Bassen kreditu-tituluen ondoren, dantza morfologiko bat hasi zen: kizkurak, korapiloak eta kiribilak, odisea ulertezin eta amaigabe bat bihurtzeraino. Boileau eta Narcejac idazle frantsesen “D’entre les morts” eleberrian inspiratu zuen “Bertigo”, eta San Frantziskon kokatuta zegoen. Kim Novakek antzeztan dituen bi emakumezko pertsonaiekin, nahi bezala dibertitzen da Hitchcock.

Pelikula amaitzerakoan, publikoak berandu erreakzionatu zuen.

Paramounteko ordezkariak Hitchcocki egotzi zioten ikusleak zertxobait hotz geratu izana, eta berandu txalotzen hasi izana. Maisuak ez zuen ezer esan. Estatu Batuetara itzuli zenean, filma hilabete batez hainbat hiritan ikusgai egon ondoren, amerikar ikusleen erreakzioa Donostiakoaren antzekoa zela baieztatu zuten eta, beraz, Paramountek amaiera aldatzera bultzatu zuen zuzendaria, bukaera hain etsigarria izan ez zedin. Hitchcockek amaiera “leuntzea” onartu zuen, baina jakinarazi zuen ez zuela sekuentzia berririk filmatuko. Ez dago esan beharrik azken pastiche honek asko sumindu zuela zuzendari ingelesa.

Gau hartan Victoria Eugenia zegoen publikoaren artean, bazen Saul Bassek diseinaturiko kreditu-tituluetatik hasi eta zuzendariak proposaturiko amaiera tragikora arte txalo egin zuen 15 urteko gazte bat. Iván Zulueta zen, jaialdiaren zuzendari eta ekitaldirako esmokin zuria jantzi zuen Antonio de Zulueta semea. Antonio de Zulueta argazkia atera ahal izan zien Hitchcock eta haren emazteari filmaren emanaldia amaitu eta gero. Irudi

havek, guztiak, lehenengoz argitaratu egin ahal izan dira orain. Emanaldiaren ondoren koktel bat eskaini zuten María Cristina hotelean, Paramount ekoizpen-etxearen eskutik. Hitchcockek bere inguruan gertatzen ari zenetik at balego bezala zirudien. Bertan zeuden Lex Barker Tarzan ohia, "Gurutze Gorriko neskak" filmeko casting osoa -Conchita Velasco, Mabel Karr, Katia Loritz eta Mercedes Alonso-, Rossana Rory italiar aktorea edo Lola Flores eta bere senar Antonio González "El Pescaílla". Hitchcockek ez zuen ia ezer jan, eta emanaldian gertatu zenaren inguruko kezka areagotzen hasi zitzaion. Kurt Doganen orkestrak "Volare" eta Sam Cookeen "Wonderful World" doinu ospetsuak interpretatzen zituen bitartean, gonbidatuek ederki gozatu zuten gauaz.

Roman Polanski

Bere oroitzapenetan, Roman Polanskik zera aipatzen du Donostiara 1958. urte hartan egin zuen bidaiari buruz: "Evak lo egin nahi du" filmean parte hartzeagatik Barbarak Donostia Zinemaldira joateko gonbita jaso zuenez, elkarrekin egun batzuk egoteko aukera izan genuen. Nire film laburra ere eman behar zutenez, niretzat ere gonbita lortu nuen. Barbarak espainiar ekoizleetako hainbat txunditu zituen, eta haiekin eskusibotasunean lan egiteko kontratuak sina zitzaizkion estutu zuten. Egoera hau ez nuen batere gustuko. Frankismoa unerik gorenean zegoen, eta giro politikoa itogarria zen; egoera horretan film duin bat egitea ez zen posible, nire ustez. Gaztea nintzen, eta artea arteagatik egitearen uste osoko militantea; alderdi ekonomikoa ez zitzaidan batere axola. Dirua lortzeko filmak egitearen ideia bere bizitza iruditzen zitzaidan. Barbara ez zen politikan sartzen, baina atsekabetuta geratu zen nire betoan ondorioz. Berari ere ez zitzaien gustatzen espainiar polizia Donostiako hondartzak patruilatzen ikustea, metro bat eskuan, gizonen bainujantzien tamaina egiaztatzen edo bikiniak zeramaten neskei arreta deitzen; edo ezta ezkongabeak izan arren hoteleko gela konpartitzen gendelako gu begi onez ez ikustea ere. Beretzat, ordea, gauza havek guztiak ez ziren aski Espainian filmik ez egiteko nire aholkua ulertzeko. Bere baitan, ziur aski, artista gisa oso egoista nintzela sentitu zuen".

Uztailak 24, osteguna

Donostia-Biarritz. Agurra

Alfred Hitchcock eta bere emazteak Zinemaldiaren zuzendari Antonio de Zulueta adetasunez agurtu ondoren utzi zuten María Cristina Hotela, Frantziako mugarantz. Los Angelesera itzultzeko hegaldiak Parisen zuen eskala, eta arratsalderako zegoen aurreikusita; beraz, Biarritz bisitatzeko aukera izan zuten, egun haietan alboan izan zituzten kide fidel batzuen

laguntzarekin. Hitchcockek argazkiak egin zituen Kasinoaren zabaldegian, hondartzan paseatu zuen, eta Hôtel du Palais miretsi zuen. Gero, aireportuko jatetxean bazkaldu zuen.

Estatu Batuetara itzuli zenean, Euskal Herrira egindako bisitagatik astebete atzeratu zuen proiektu berria zuen zain: "Heriotza orpoetan" ekoizpenaren filmazioa, hain justu, eta uztailaren 28an ekin zion berriro lanari, aurreikusitako bezala. Hitchcockek hitzartuta utzi zuen, ordurako, 1959. urteko Donostia Zinemaldian izango zuen parte-hartzea. Izan ere, bisitaz izugarri gozatzeaz gain, Donostiako jaialdiko Sail Ofizialeko filmak, gobernuaren aginduz, tasa eta muga-zerga guztietatik libre zeuden, eta, ondorioz, bere filmak onura komertzialak eta inportazioari zegozkion abantailak lortu zitzaizkion.

58. urtea

1958. urtean, Canneseko jaialdian, Marcel Achard frantziar idazlea presidente izan zuen epaimahaiak Urrezko Palma "Letyat zhuravli" ("Zikoinak pasatzen direnean") errusiar filmari eman zion. Berlinen, Frank Capra zuzendari amerikarra buru zuen epaimahaiak, Ingmar Bergmanen "Marrubi basatiak" filma saritu zuen. Donostian, Tadeusz Chmielewskiren "Evak lo egin nahi du" lanari eman zion sari nagusia Luis García Berlanga presidente zuen epaimahaiak. Filmaren zuzendariaren arabera, 50eko hamarkadako Poloniako nahaste politikoari buruzko zinta kritikoa zen, komedia irreal baten kutsuarekin. "Bertigo"k, berriz, Mario Monicelliren "Rufufu" film italiarrarekin konpartitutako Zilarrezko Maskorrarekin konformatu behar izan zuen. Argi zegoen urte hartan ekialdeko blokea izenekoaren lurraldeak izan zirela nazioarteko jaialdietako garaileak. Itxiera-ekitaldiak eta sari-banaketarekin Franco jeneralaren emaztea izan zituen buru, urtero igarotzen baitzuten udak Donostian.

Francoren emazte Carmen Polo andreak Roger Vadimek idatzi eta Marc Allégretrek zuzenduriko "Ilehori arriskutsu bat" film hutsala jasan behar izan zuen itxiera-ekitaldian. Alain Delon eta Jean-Paul Belmondo, frantziar zinemako bi galaien lehen antzezpenak ikusi ahal izan ziren bertan, eta Mylene Demongeot ilehoriaren (Brigitte Bardoten erreplika bat) jantzi eskotatuak izan ziren filmaren eragingarririk handienak. "Andreak" poker aurpegia jarri zuen sexu biziko eszena bat ikustean. Baina ez zen ezer larririk gertatu, eta zazpi egun lehenago hasi bezala amaitu zen dena, txalo-zaparradekin, etorkizuneko jaialdietarako promesekin. Jantzi eta bitxirik onenak zeramatzaten gonbidatuak agurtzeko Antonio de Zulueta egin zuen emanaldi zeremonitsuarekin itxi zen edizio hura, urtebetetzeko tarta baten moduan argizatutako Victoria Eugenia Antzokian.

Epilogo

1959. urtea. "Heriotza orpoetan" filmaren estreinaldia Donostian

1959. urteko uztailaren 11tik 20ra egindako Donostiako zortzigarren Zinemaldian "Heriotza orpoetan" aurkeztu zen, aipatu bezala, Sail Ofizialean. Uztailaren 13an egin zen emanaldi ofiziala, eta aurkezpenean Eva Marie Saint aktorea izan zen filmaren ordezkari. Eva Marie Saint Elia Kazanen "Isiltasunaren Legea" filmaren protagonista izan zen Marlon Brandorekin batera, eta antzezpen harengatik Oscar saria irabazi zuen 1954. urtean.

Aktore estatubatuarra goizeko trenean heldu zen Madrildik. Zilarrezko Maskorra eskuratu zuen filma aurkeztu zuen -Melynn Douglas amerikar aktorea izan zen epaimahai buru-, eta, horrez gain, Hitchcock beraren aholkua jarraituz, Donostiako paisaiatz eta gastronomiaz gozatu zuen. Baina hau beste istorio bat da.

Epílogo

Año 1959. Estreno en San Sebastián de 'Con la muerte en los

talones'

En el octavo Festival de Cine de San Sebastián, que se celebró del 11 al 20 de julio de 1959, se presentó en la Sección Oficial, tal y como ya hemos contado, 'Con la muerte en los talones'. El día 13 tuvo lugar su proyección oficial, y para presentarla acudió en representación su actriz, Eva Marie Saint, ganadora de un Oscar en 1954 por 'La ley del silencio' de Elia Kazan, que interpretó junto a Marlon Brando. La intérprete estadounidense llegó en el tren de la mañana desde Madrid. Además de presentar el film, que el jurado presidido por el actor americano Melvyn Douglas premió con una Concha de Plata, por consejo del propio Hitchcock, la actriz disfrutó del paisaje y la gastronomía de San Sebastián y sus alrededores. Pero esa ya es otra historia.

En París estaba previsto para la tarde, por lo que aún tuvo tiempo de visitar Biarritz junto con el grupo de fieles guardianes que le habían acompañado durante esos días. Se hizo fotos junto a la explanada del Casino, paseó junto a la playa y admitió al Hôtel du Palais. Después, comieron en el restaurante del aeropuerto.

A su regreso a Estados Unidos, le esperaba su nuevo proyecto aplazado una semana por su visita al País Vasco. El proyecto no era otro que el rodaje de su nueva película 'Con la muerte en los talones', que se reanudó como estaba previsto el 28 de julio. Hitchcock ya había dejado apalabrada su participación en el certamen donostiarra del año siguiente, 1959, porque además de haber disfrutado enormemente de su visita, la película podía acogerse a los privilegios comerciales y de importación que tenían las cintas en la Sección Oficial del Festival de San Sebastián que, por orden gubernamental, quedaban exentas de toda tasa y arancel.

Año 58

En el año 1958, con un jurado presidido por el escritor francés Marcel Achar'd, la Palma de Oro del festival de Cannes se otorgó a la película rusa 'Cuando pasan las cigüeñas'. En Berlín, presidido por el director americano Frank Capra, la ganadora fue 'Fresas salvajes' de Ingmar Bergman. En San Sebastián, el jurado, con Luis García Berlanga a la cabeza, premió la película polaca 'Eva quiere dormir', dirigida por Tadeusz Chmielewski, cinta crítica sobre la desorientación política en la Polonia de los años 50 en tono de comedia irreal según aseguró su director. 'Vertigo' tuvo que conformarse con una Concha de Plata compartida con la película italiana de Mario Monicelli, 'Rufutú'. Estaba claro que ese año, los países del llamado bloque del este triunfaron en todos los festivales internacionales. La gala de clausura y de entrega de premios fue presidida por la esposa del general Franco que, como cada año, pasaba sus veranos en San Sebastián.

La esposa de Franco, doña Carmen Polo, tuvo que sufrir una película de clausura pueril titulada 'Una rubia peligrosa', escrita por Roger Vadim y dirigida por Marc Allégret, donde hacían sus primeras interpretaciones dos galanes del cine francés, Alain Delon y Jean-Paul Belmondo, y que tuvo en los escotados vestidos de la rubia Mylene Demongeot (una réplica de Brigitte Bardot) sus mayores alicientes. La 'señora' puso su cara de póker en una escena de sexo sulfuroso. Pero la sangre no llegó al río y todo terminó como había empezado siete días antes, con aplausos, promesas para los festivales vendederos y con la ceremoniosa actuación de Antonio de Zulueta despidiendo a sus invitados, que lucían sus mejores galas, en un Teatro Victoria Eugenia iluminado como una tarta de cumpleaños.

de 15 años que aplaudió, desde los títulos de crédito diseñados por el gran Saul Bass hasta el trágico final propuesto por el director. No era otro que Iván Zulueta, hijo del director del festival, Antonio de Zulueta, que lució un esmoquin blanco para la ocasión. Este pudo fotografiar a Hitchcock y su esposa a la salida de la proyección. Imágenes que hoy, por fin completas, ven la luz. Tras la proyección se ofreció un coctel por cuenta de la Paramount en el Hotel María Cristina. Hitchcock parecía ajeno a todo lo que ocurría a su alrededor. Allí pudimos ver al ex Tarzán Lex Barker, el casting completo de 'Las chicas de la Cruz Roja' –Conchita Velasco, Mabel Karr, Katia Loritz y Mercedes Alonso-, la actriz italiana Rossana Rory o Lola Flores y su esposo Antonio González 'El Pescallir'. Hitchcock apenas probó bocado y la preocupación por lo que había pasado durante la proyección iba en aumento. Mientras la orquesta de Kurt Dogan interpretaba las famosas melodías 'Volare' y el tema de Sam Cooke, 'Wonderful World', los invitados fueron adentrándose en la noche.

Roman Polanski

En sus memorias, Roman Polanski se refiere a su viaje a San Sebastián de aquel año 1958: "Tuimos ocasión de pasar unos días juntos cuando Barbara recibió la invitación del Festival de San Sebastián por su participación en la película 'Eva quiere dormir'. Como se debía proyectar también mi cortometraje, conseguí una invitación para mí. Barbara impresionó a varios de los productores españoles, que la prestionaban para firmar contratos de exclusividad con ellos para varios filmes. Esta situación no me gustaba nada. El franquismo estaba en su cénit y la atmósfera política era asfixiante, a mis ojos no era posible realizar un film digno en esa situación. Era joven y millitante convencido del arte por el arte, perfectamente indiferente a las consideraciones económicas. La sola idea de que se pudiera hacer una película por dinero me parecía obsceno. Barbara, que no se metía en política, se sintió decepcionada por mis vetos. A ella tampoco le gustaba ver a la policía española patrullar por las playas de San Sebastián con un metro para verificar la dimensión de los bañadores de los hombres o interpelar a las chicas en bikini; o que nos miraran mal por compartir la habitación del hotel sin estar casados. Pero eran cosas que no le bastaban para entender mi actitud al aconsejarle que no rodara en España. En su interior probablemente sintió que yo era muy egóista como artista".

Jueves 24 de julio

San Sebastián-Biarritz. Despedida

Alfred Hitchcock y su esposa abandonaron el Hotel María Cristina dirección a la frontera con Francia tras despedirse afectuosamente del director del festival, Antonio de Zulueta. El vuelo de regreso a Los Angeles con escala

Hitchock llegó puntual y de riguroso esmoquin negro escoltado por su esposa, Alma Reville, que visitó para la ocasión un conjunto blanco de Cristóbal Balenciaga envuelta en una estola de piel. Tras una breve presentación de Ana Mariscal, el director inglés salió a escena con un gesto imperturbable. Regaló a la audiencia que rebosaba la sala algunos chistes y bromas, demostrando una vez más que el director era la verdadera estrella. – Perdonen, pero es que estoy impaciente por ver la película! Tiene un suspense...!, bromaba.

Entre el público podía verse a la totalidad del jurado. También a jóvenes e incipientes directores como Carlos Saura, que presentaba el mediotraje 'Cuenco', que obtenía una distinción del jurado. Narrada por el actor Francisko Rabal, el documental muestra un honesto y sincero recorrido por las tierras conquenses sin artificios pero con sentimiento y autenticidad. Un despidido joven polaco cuyo nombre, desconocido por aquel entonces, no era otro que el de Roman Polanski, irumpió por primera vez en San Sebastián, cuando tenía 25 años donde presentó el cortometraje 'Dos hombres y un armario', que pasó sin pena ni gloria. No obstante, su visita no fue en balde, pues mantenía un idilio con la actriz Barbara Kwiatkowska, protagonista de la película ganadora de aquella edición con la que se casaría un año después. Ella, tras el éxito alcanzado en el festival de ese mismo año como intérprete de 'Eva quiere dormir', decidía cambiarse el nombre por uno más sencillo, Barbara Lass. En la proyección también pudo verse al director americano Anthony Mann, que estuvo acompañado de su esposa, Sara Montiel. Todas las fuerzas vivas de la ciudad, presididas por su alcalde Antonio Vega de Seoane, tampoco fallaron a la gran cita del cine. Hitchock y su esposa observaban la reacción del público según avanzaba la película desde el palco central reservado a los equipos de cada filme. Los títulos de crédito de Saul Bass se lanzaron a la ejecución de una danza morfológica, rizos, nudos y espirales que se dilatan transformándose en una odisea indescribable e infinita. 'Vertigo', localizada en San Francisco, está inspirada en la novela de los autores franceses Boileau y Narcejac. 'Entre les morts'. Hitchock se divierte a su antojo con las dos mujeres que interpreta en la cinta Kim Novak.

Al finalizar la película el respetable tardó en reaccionar. Los delegados de la Paramount reprocharon a Hitchock que el público se quedara un tanto frío y tardara en aplaudir. El maestro ante esta situación no dijo nada. A su regreso a los Estados Unidos, donde la película llevaba un mes proyectándose en varias ciudades, se comprobó que la reacción del público americano era similar al del donostiarra, por lo que la Paramount presionó al realizador para que modificara el final, dando un tono menos desesperado en su desenlace. Hitchock aceptó 'suavizar' ese final, pero advirtió que no rodaría una secuencia nueva. Ni que decir tiene que ese pastiche final irritó mucho al director inglés.

Entre el público esa noche en el Victoria Eugenia había un joven de poco más

más famosa del momento, 'Paris Match', con un sugerente título: 'El rey del suspenso sorprendido en el lugar de su inspiración'. Al mediodía, concretamente a las 13 horas, se celebró una rueda de prensa organizada por la productora de la película en los salones del Hotel María Cristina, donde aprovechó para hacer publicidad de su próxima película, 'Con la muerte en los talones'. Ante la sorpresa general, el director inglés explicó su particular visión del cine de suspense: "Es como un refinamiento de las antiguas películas de monstruos. Mis películas han demostrado que no había necesidad de recurrir a lo terrorífico ni a lo truculento para mantener latente el interés del público, logrando que el espectador esté pendiente de lo que sucede ante sus ojos, pero sin necesidad de gritos ni excesos. Es una conquista de la que estoy satisfecho de verdad". En la animada conferencia de prensa, sentado en un sillón de cuero junto a una mesa, contestó a cada una de las preguntas que se le plantearon. Allí pudimos ver al director de cine Luis García Berlanga y la actriz Ana Mariscal, que horas después lo presentaría en el Teatro Victoria Eugenia.

Mientras todas las miradas estaban puestas en la rueda de prensa, Alma Reville charlaba amigablemente con King Vidor en el hall del hotel. El director rodaba esos días en nuestro país 'Salomón y la reina de Saba'. Tras una interesante charla, la esposa de Hitchcock aprovechó la mañana para hacer compras mientras su marido atendía a los medios de comunicación. En primer lugar visitó, en el número 2 de la Avenida, la casa Balenciaga, que llevaba el nombre Eissa en honor al apellido de la madre del modisto de Getaria. Alma era cliente habitual del diseñador. Era común verla en las pruebas de vestuario que realizaba en París y a las que solía acompañarle su marido sin rechistar. Acompañada por la señora Vergara Jauregui, esposa de Antonio de Zulueta, adquirió en la desaparecida Derby varias prendas para su hija Patricia. No dudó en tomarse un aperitivo en la terraza del Café Madrid en un San Sebastián repleto de turistas en pleno verano.

San Sebastián y la visita al anticuario

Tras el revuelo de la rueda de prensa y a pesar del cansancio, Hitchcock encontró tiempo de acompañarlo por el periodista Enrique Herreros, visitó algunas tiendas de anticuarios de la ciudad. Cuando fue sorprendido por el público, se colocó en el escaparate de una de las tiendas como si fuera una estatua de cera, sin moverse ante el estupefacción. Tras ese momento, y como la comida había sido muy ligera, se trasladó al puerto donde engulló una docena de sardinas a la plancha.

Teatro Victoria Eugenia y estreno de 'Vertigo'

Ese año, se inauguró un nuevo alumbrao en el Teatro Victoria Eugenia o Palacio del Festival, como se le denominaba en aquellos años. Alfred

Jacquette, donde se sentó en su terraza a tomar un café. Se mezcló con la gente y se hizo fotos quienes se lo solicitaron. Alma aprovechó el momento para comprar unos bombones para su hija Patricia en la célebre pastelería. La comitiva se dirigió entonces hasta el río. El realizador británico no dudó en detenerse al paso de dos restaurantes como 'La Rascasse' o 'Les Arceaux', con su humor característico, no fue extraño verle admirar los diferentes atúdes que se advertían desde el escarpate de unas conocidas pompas fúnebres.

Visita a Lourdes

A media tarde, y como uno de los empeños personales del director en su visita al festival, visitó Lourdes. Entonces se conmemoraba el centenario de la aparición de la Virgen a la pequeña Bernadette. Aquella celebración se convirtió en un peregrinaje europeo que el director inglés no quiso perderse. Allí pudo observar el fervor popular, mezclándose con los enfermos. En la pequeña gruta pudo ver la estatua en honor a la Virgen de Lourdes. Ya había anochecido cuando regresaron a San Sebastián y, cansados de la excursión, volvieron a su habitación con la intención de descansar. No sin antes ser abordados por la periodista Maritxu Mayor Lizarbe en el ascensor. Ella no dudó en hacerle varias preguntas al director:

– ¿Qué estrella femenina y masculina prefiere usted?

A lo que Hitchcock irónico contestó:

– No hay respuesta a esa pregunta.

– ¿Pregunta peligrosa? – afirmó la periodista de 'La Voz de España'.

Hitchcock, mirando a su mujer que contenía una sonrisa exclamó:

– Si yo le digo las que más me gustan o las que considero mejores

intérpretes, corro el peligro de morir asesinado a manos de las que no

mencione.

Entre risas llegaron a la suite. Al día siguiente tendría lugar la presentación de 'Vertigo', por lo que convenía estar descansados.

Miércoles 23 de julio

San Sebastián-Cementerio de Polloe-Hotel María Cristina

Había en el ambiente una enorme expectación antes de la proyección de 'Vertigo'. Varios responsables de los estudios Paramount se habían trasladado a San Sebastián para la ocasión y estaban ansiosos por conocer la reacción del público. A primera hora de la mañana, acompañado por el periodista de 'Gaceta Ilustrada' Enrique Herreros y por el fotógrafo Vicente Ibáñez, se trasladaron al cementerio de Polloe, donde realizaron una sesión fotográfica que, además de en la mencionada revista, se publicaría en la revista francesa

Sara Montiel, Ana Mariscal, Roman Polanski, Carmen Sevilla, Lex Barker, Kirk Douglas, Jean Marais, Alessandro Sclafani o Jacqueline Sassard. Manoel de Oliveira, Rosanna Schiaffino o Jacqueline Sassard. Fero volvamos con Hitchcock, que descansa placidamente en su suite del María Cristina mientras ultima algunos apuntes de su nueva película, cuyo rodaje ha pospuesto una semana para poder estar en San Sebastián. Se trata de 'Con la muerte en los talones', protagonizada por Cari Grant y Eva Marie Saint.

Martes 22 de julio

Pasajes de San Juan

El día amaneció algo lluvioso. Alfred Hitchcock y su esposa, Alma Reville, desayunaron en la habitación de la suite. Por delante, todo un día para hacer turismo por la región. Comenzaron por Pasajes de San Juan, donde aibbaron la casa que ocupó el célebre escritor francés Victor Hugo durante su estancia entre nosotros. Paseó por los enjutos callejones y admiró la vista del mar. La organización del festival había reservado mesa en un conocido restaurante, Casa Cámara, fundada en 1884 por Pablo Cámara. Alfred, consumido gourmet, almorzó copiosamente. Entremeses, lenguado, un gran turnedó con guarnición, arroz con leche, café y un enorme puro.

Bayona

Tras la comida, cruzó al País Vasco francés, donde llegó hasta Bayona. Lo primero que hizo la comitiva fue llevarle hasta la espléndida catedral de la localidad de Sainte-Marie, situada en 15 Rue des Prébendes. Tanto Hitchcock como Luis Buñuel fueron educados en el catolicismo por los jesuitas, aunque más tarde, ambos cineastas eligieron caminos diferentes. Hitchcock fue un Católico practicante toda su vida. De ahí su interés de aprovechar su visita al País Vasco para visitar iglesias, claustros y catedrales. La iglesia de estilo gótico inició su construcción en el siglo XIII y no se terminó de erigir hasta el siglo XVII, a excepción de sus dos torres, que fueron completadas en el siglo XIX. En su interior, Hitchcock descansó en los bancos de madera, sorprendido e incrédulo, observaba ensimismado el esplendor de la catedral. No dudó en subir hasta el macizo y barroco púlpito de 1760. El fotógrafo Paco Martí inmortalizó el momento en el que el mago del suspense se detuvo ante las apabullantes cristalerías. Todo ese material gráfico del interior de la iglesia ha permanecido inédito durante años porque las autoridades franquistas consideraron irreverente para la época la actitud que adoptó Hitchcock en su interior. Posteriormente, la comitiva bajó por la calle del Pont Neuf hasta el barrio antiguo, donde se dejó fotografiar en varias chocolaterías como la Pâtisserie

cena, momento en el que el polifacético realizador y su mujer se despidieron al clásico restaurante de la ciudad Casa Nicolás, fundada en 1912 por Nicolás Pradera en el corazón de la calle Aldamar, a escasos metros del María Cristina. No escatimó con el menú; melón con jamón, chipirones en su tinta, languido a la 'belle étoile' y pudding de melocotón. Hitchcock llegó a decir que, "desaparecido el primer impulso sexual en una pareja, comer juntos era una variable de hacer el amor".

Año 58

En otro orden de cosas, 1958 fue un año bastante convulso. Ese año se funda la Comunidad Económica Europea. Egipto y Siria se unen para formar la República Árabe Unida, posteriormente disuelta. El Sha de Persia repudia por esterilidad a la princesa Soraya. La Unión Soviética lanza al espacio el satélite artificial Sputnik 3. Franco promulga las leyes fundamentales del 'Movimiento'. Charles de Gaulle es elegido presidente de la V república francesa. Se funda la fábrica de piruletas Chupa Chups. Se publica la novela 'Lolita' de Vladimir Nabokov, llevada posteriormente al cine en 1962 por Stanley Kubrick. Asimismo, el dibujante Ibáñez crea Mortadelo y Filemón. Brasil gana el mundial de fútbol con Pelé a la cabeza. Fallece el poeta Juan Ramón Jiménez, que había recibido el Premio Nobel dos años atrás. Es el centenario de la Virgen de Lourdes. La canción que triunfa en la radio es 'Volare' en la voz de Domenico Modugno. Los jóvenes se pasan en Lambretta, la moto de moda. El conac es Terry 1900. El papa Pío XII se dirige a las monjas y afirma "la alegría, la pobreza y la sencillez son las bases del estilo de vida conventual". Mientras el resto del mundo nos aislaba, el régimen se afanaba en dar imágenes aperturistas y cosmopolitas del país y el Festival de San Sebastián servía de escaparate con la visita de estrellas del celuloide y grandes directores, que despidaban la opresión atenuante que se vivía en el final de la década de los 50. La revista de moda es 'Gaceta Ilustrada' (una especie de 'Paris Match'). En su portada titula, "Cine en San Sebastián". La gran crisis de 1958 y la gran inflación traen consigo el malestar de la clase obrera, acontecimientos apaciguados por el general Franco.

Festival de San Sebastián

En julio de 1958, la ciudad de San Sebastián luce soleada. Durante el festival, un rally aéreo de las estrellas, dirigido por el popular Bobby Deglané, retrasmite desde el aire la llegada de algunas 'starlettes'. Durante esos días, se celebró un cross popular en Lasarte-Oria patrocinado por el fotógrafo y miembro del comité del festival Willy Koch. Ese año, pudieron verse en el festival los nuevos trabajos de Mario Monicelli, Leopoldo Torres Ríos, Basil Dearden, Antonio Pietrangeli, Richard Fleischer o Douglas Sirk, pero el acontecimiento de esa edición fue sin ninguna duda el estreno de 'Vertigo'. Hubo muchos invitados, Luis García Berlanga, Anthony Mann y

Lunes 21 de julio

Biarritz-Hendaya-San Sebastián

Alfred Hitchcock y su esposa, la guionista Alma Reville, llegaron al aeropuerto de Biarritz a las 12:50 del 21 de julio tras un accidentado viaje desde Los Angeles hasta París. La línea, directa y sin escalas en ruta por el Polo Norte, era muy frecuentada en aquellos tiempos. Antes de abandonar el espacio aéreo americano, la tripulación observó una fuga de gasolina en los depósitos de combustible, obligando al piloto a realizar un aterrizaje de emergencia en la base aérea de Albany, en Seattle. El problema quedó resuelto un par de horas más tarde y el viaje continuó con destino a la capital francesa, donde llegaron pasadas las 17 horas del domingo. Sin mayores complicaciones, volaron al día siguiente hasta Biarritz, donde les esperaba un flamante Kolls-Royce que la organización del certamen de San Sebastián había dispuesto para el tiempo en el que durara su visita. Por carretera, llegaron hasta la frontera de Hendaya con Irun, donde entregaron sus pasaportes ante una enorme expectación de medios gráficos y escritos. Allí pudo verse el fotógrafo Torremocha, a la periodista Maritxu Mayor. Lizarbe o a la plana mayor de la distribuidora Paramount. El trayecto hasta llegar a San Sebastián supuso para el director británico un interesante descubrimiento, pues era la primera vez que visitaba el País Vasco. Al llegar al Hotel María Cristina, fue recibido con gran solemnidad por el director del festival, el Sr. Antonio de Zulueta, padre del cineasta Ivan Zulueta y fundador del cineclub Ateneo de San Sebastián, hombre culto y educado que había sido presidente del Real Club Náutico de la ciudad.

San Sebastián

El director británico ocupó la suite 405 del Hotel María Cristina antes de dar un primer paseo por la ciudad acompañado de un miembro de la Paramount. Mientras Alma descansaba en el hotel, Hitchcock se dio un baño de masas firmando numerosos autógrafos entre las y los viandantes. Aunque daba la sensación de sentirse cansado, el director controlaba hasta el más mínimo detalle. En la sociedad gastronómica de Gaztelubide, dirigida entonces por el presidente José Manuel Villar Salbide, les esperaba una comida de fotografía Peco Mari, visitó la Iglesia de Santa Teresa y la basílica de Santa María, donde admiró el esplendor del atrio central. A continuación, atravesó la calle 31 de agosto hasta San Vicente, lugar en el que se dejó fotografiar con una religiosa que pasaba a su lado. Llegó hasta el museo San Telmo y quedó impresionado por los frescos de José María Sert y el espectacular pórtico del museo. "¡Es un excelente escenario natural para una de mis películas!", exclamó.

Pasó el resto de la tarde descansando en la suite del hotel hasta la hora de la

Un viaje por el País Vasco

La exposición *Welcome Mr. Hitchcock* narra, a modo de diario personal, la visita que realizó al País Vasco Alfred Hitchcock con su esposa, Alma Reville, para el estreno mundial de la película 'Verigo' en el Festival de San Sebastián de 1958. La muestra sigue cronológicamente y paso a paso sus cuatro días entre Biarritz, Hendaya, San Sebastián, San Juan (Pasaja), Bayona y Lourdes. La exposición reconstruye su viaje, ¡jugando con el tiempo pasado y acercándolo hasta el presente. Un recorrido fotográfico, en su mayoría inédito, que nos muestra al maestro al presente en su faceta más desconocida. Un centenar de imágenes que nos devolverán a tiempos pasados y nos harán revivir los modos y las modas de aquel año.

WELCOME
MR. HITCHCOCK

Organiza



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
dss2016.eu

Colabora



DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

Las imágenes de esta exposición pertenecen a los archivos de:

Vicente Ibañez
Biblioteca Nacional de España
Kutxateka
Fondo Paco Mari
Festival de San Sebastián
Médiathèque centre-ville de Bayonne
Aéroport Biarritz Pays Basque
Carlos Sáura
Familia Alvarez (Willy Koich)
Iván Zulueta
Pedro Usabigta
Paramount
MGM

Agradecimientos:

Gala Alvarez
José Luis Tudurí
Miguel Vidaurte
Enrique Herreros
José Luis Rebordinos
Moncho Trillos
Hotel Astoria

Dirección y comisariado de la exposición

Pedro Usabigta

Con la colaboración de

Quentín Valois

Producción

Marisa Usabigta

Texto original

Pedro Usabigta

Coordinación de textos

Gorka Larrumbide

Traducción

Cristina Odiola

Quentín Valois

Infografía y diseño

Quentín Valois

Audiovisual

Quentín Valois

Diseño y producción montaje expositivo

Gorostidi-Sistiaga Arquitectos

Diseño gráfica expositiva

Estudio Lanzagorta

Diseño iluminación

Xabier Lozano

Montaje expositivo

Druck S.L.

Carpintería

Mella Aroztegia

Revestimientos

Juñra

Reproducción y tiraje de copias

Prinhaus



CAPITAL EUROPEA
DE LA CULTURA



DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL



Un viaje por el País Vasco

WELCOME MR. HITCHCOCK



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

